

Ley 42/1998, de 15 de diciembre, sobre Derechos de aprovechamiento por turno de Bienes Inmuebles de Uso Turístico y Normas Tributarias

BOE, nº 300, de 16 de diciembre

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

Con el término impropio de «multipropiedad» se vienen denominando todas aquellas fórmulas por las que se transmite el derecho a disfrutar de un alojamiento durante un período determinado cada año.

El interés en realizar una adquisición de esta naturaleza suele estar justificado en la utilización vacacional del inmueble: por un lado, el adquirente dispone de un lugar estable y seguro para sus vacaciones anuales; por otro, lo hace sin tener que adquirir, y pagar, la entera propiedad del inmueble, con lo que reduce considerablemente la inversión, ajustándola a sus posibilidades reales de disfrute.

Desde el punto de vista jurídico, la figura implica una división temporal del derecho a disfrutar del bien.

A pesar de que el 6 de julio de 1960 se inscribió en el Registro de la Propiedad Industrial una patente de invención de unas llamadas «pólizas de verano», que atribuían a sus titulares el derecho a disfrutar de un alojamiento vacacional por «períodos fijos o variables», este sistema de explotación turística de inmuebles era desconocido en España hasta tiempo relativamente reciente; sí pueden encontrarse en cambio fórmulas similares de explotación en otros ámbitos, como son, por ejemplo, el régimen jurídico de dulas, tradicional en Canarias, que consiste en dividir temporalmente la explotación del agua entre sus titulares, o las comunidades pro-diviso con la concurrencia de los derechos dominicales de invernadero, agostadero, pastos y de labor (cada dos, tres o seis años), propios de Extremadura, así como, en nuestro derecho histórico, la dula de aprovechamientos de pastos y la división temporal del uso y disfrute de una finca por razón de diversos cultivos.

Sea como fuere, desde que esta figura se empezó a aplicar, ha tenido un amplio desarrollo, hasta hacer de España el segundo país del mundo en número de complejos explotados de esta forma.

Muy poco después de la introducción de la figura, se convirtió en un lugar común la idea de que la legislación existente era insuficiente para dotar a la misma de un marco legislativo adecuado.

Esta idea resultaba cuando menos apresurada.

El problema no era tanto de configuración jurídica como de garantizar el efectivo disfrute de cada derecho.

Por otro lado, para la Unión Europea ha sido, hace

Abenduaren 15eko 42/1998 Legea, Turismo Erabilerako Ondasun Higiezinaren Txandakako Aprobetxamendu- eskubideena eta Zerga-Arauena

EAO, 300. zk., abenduaren 16koa

ZIOEN AZALPENA

I

«Multijabetza» termino desagokiaren bidez izendatu izan dira urte bakoitzeko aldi zehatz batean eta bizitegi baten gaineko lupertze-eskubidea eskualdatzeko erabiltzen diren formula guztiak.

Izaera horretako eskuraketa egiteko interesaren justifikazioa izan ohi da ondasun higiezina oportretan erabiltzea: bateko, eskuratzaileak leku egonkor eta segurua du urteko oportretarako; besteko, ez du ondasun higiezinaren jabetza osorik eskuratu eta ordaintzeko premiarik. Modu horretan, inbertsioa asko murriztu eta luperketa benetako aukeretara egokitzen da.

Ikuspuntu juridikotik, figura horrek ondasuna lupertzeko eskubidea denboran zehar zatitzea dakar.

1960ko uztailaren 6an Industria Jabetzaren Erregistroan «udako poliza» izeneko batzuen asmakuntza-patentea inskribatu zen; poliza horien bidez, titularrei oportretarako bizitegi bat «aldi finko edo aldakorretan» lupertzeko eskubidea eratziki zitzaion. Hala ere, ondasun higiezinaren turismo-ustiapenerako sistema hori ezezaguna izan da Espainian oraintsu arte. Zernahi gisaz, beste eremu batzuetan badira antzeko ustiapen-formulak, besteak beste, dulen araubidea, Kanarietan ohikoa dena; formula hori datza uraren ustiapena titularren artean denbora baterako zatitze horretan; edo, pro-indibisio erkidegoak, negutegi, larre, bazkaleku eta nekazaritzarekin zerikusia duten jabetza-eskubideekin batera (bi, hiru edo sei urterik behin), jatorriz Extremadurakoak izanik; eta, zuzenbide historikoan, bazken aprobetxamendurako dula eta zenbait lugintza direla- eta finka baten erabilera eta luperketa denbora baterako zatitzea.

Nolanahi den ere, figura hori, aplikatzen hasi zenetik, asko garatu da. Horren eraginez, Espainia da munduan era horretan ustiatutako eremu gehien dituen bigarren estatua.

Figura hori asmatu eta gutxira zabaldu zen ustea, hain zuzen ere, orduan zegoen legeria lege-esparru egokia emateko askieza zela zioena.

Idea hori azkarregi sortu zen.

Eraketa juridikoa ez zen horrenbesteko arazoa, ezpada eskubide bakoitzaren luperketa eragingarria bermatzea.

Bestalde, aspalditik izan dira kezka- iturri Europar

ya tiempo, motivo de preocupación la gran cantidad de abusos que se han dado en este sector: desde la «propuesta de Resolución sobre la necesidad de colmar la laguna jurídica existente en materia de multipropiedad », que fue presentada al Parlamento Europeo el 17 de octubre de 1986, hasta la Directiva 94147/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de octubre de 1994, «relativa a la protección de los adquirentes en lo relativo a determinados aspectos de los contratos de adquisición de un derecho de utilización de inmuebles en régimen de tiempo compartido».

Hitos importantes en ese camino fueron las Resoluciones del Parlamento Europeo de 13 de octubre de 1988 y de 11 de junio de 1991.

También cabe citar la Resolución de 14 de septiembre de 1989, que se enmarca en el campo de las adquisiciones inmobiliarias transfronterizas.

Al final, la propia Unión Europea llegó al convencimiento de que el problema no estaba tanto en una teórica insuficiencia legislativa como en el hecho de tratarse de un sector donde el consumidor está especialmente desprotegido, de modo que lo procedente era la elaboración de una Directiva que estableciera una normativa de carácter excepcional y que limitara, en este ámbito, la autonomía de la voluntad hasta donde fuera aconsejable.

Las medidas concretas adoptadas por la Directiva son las siguientes:

Estableció, en favor del adquirente, un derecho de desistimiento unilateral durante los diez días siguientes a la celebración del contrato.

La Directiva, en su traducción al español, lo llama «derecho de resolución», y añade la caracterización «ad nutum» para indicar que el mismo se ejerce sin necesidad de alegar ningún motivo o razón.

Sin embargo, precisamente porque no es necesario alegar ningún motivo, y no lo es porque no es necesario que exista, al ser una facultad que se concede al adquirente por el mero hecho de serlo y que puede ejercitar libremente sin necesidad de que concorra ninguna condición ulterior, parece más ajustado denominarlo facultad de «desistimiento », que es expresión que acentúa ese carácter unilateral e incondicionado.

Además de esta facultad de desistimiento, la Directiva impone al vendedor una obligación de información, que se desglosa en los siguientes aspectos: en primer lugar, el vendedor debe disponer, a favor de cualquiera que lo solicite, de un documento informativo, en el que se recojan determinados extremos; en segundo lugar, el contrato debe contener ciertas menciones, que tienen por objeto, en definitiva, informar al adquirente de aspectos esenciales de lo que está adquiriendo.

Para hacer plenamente eficaz este deber de

Batasunerako sektore horretan egin izan diren abusuak; horretara datoz, ulerbidez, «multijabetzaren arloan dagoen hutsune juridikoa betetzeko beharrari buruzko ebazpen- proposamena», Europako Parlamentuan 1986ko urriaren 17an aurkeztu zena, eta 94147/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1994ko urriaren 26koa, «denbora banatuko araubidepean ondasun higiezinak erabiltzeko eskubidearen eskuratze- -kontratuetan, kontratuon zati batzuei dagokienez, eskuratzaileak babesteari buruzkoa».

Bide horretan, mugari garrantzitsuak izan ziren Europako Parlamentuaren ebazpenak, 1988ko urriaren 13koa eta 1991ko ekainaren 11koa.

Era berean, 1989ko irailaren 14ko Ebazpena aipatu behar da, mugaz bestaldeko ondasun higiezinaren eskuraketan eremuan sartzen dena.

Azkenean, Europar Batasunak onartu zuen arazoa ez zela legeriaren gutxiegitasun teorikoa, baizik eta sektore horretan zegoen kontsumitzailearen babesik eza. Hortaz, bidezkoa zen zuzentarau bat egitea, eta, bertan, salbuespen- -izaerako arauketa ezartzea, eremu horretan borondatearen autonomia mugatzeko, komeni zen mugaraino.

Hauetara zuzentzerako hartutako neurri zehatzak:

Eskuratzailearen mesederako, kontratua egin eta hurrengo hamar egunetan, berak bakarrik atzera-egiteko eskubidea ezarri zen.

Zuzentzerauak, espainiarako itzulpenean, «suntsiarazte-eskubide» izendatu du hori, eta «ad nutum» ezaugarria gehitu dio, inongo arrazoirik alegatzeko beharrik gabe egikaritzen dela adieraziz.

Zerzati gisaz, eta inongo arrazoirik alegatzea beharrezkoa ez delako, zehatzago dirudi «atzera-egiteko» ahalmena dela esatea, alde bakarreko eta baldintzarik gabeko izaera hori azpimarratzen duen adierazmoldea da hori eta. Ez da beharrezkoa inongo arrazoirik alegatzea, horrelako arrazoirik egotea ez baita beharrezkoa; ahalmen hori eskuratzaileari ematen zaio eskuratzaile izateagatik, eta horrek askatasunez egikari dezake, gerorako baldintza-premiarik gabe.

Atzera-egiteko ahalmen horrez gain, zuzentzerauak saltzaileari informazio- -betebeharra ezarri dio, eta betebehar horretan alderdi hauek bereiz daitezke: lehenengo eta behin, saltzaileak informazio- agiri bat izan behar du, halakoa eskatzen duen edonoren eskura, eta, horretan, gai jakin batzuk jaso behar dira; bigarren, kontratuan zenbait aipamen jaso behar dira, eskuratzaileari eskuratzen ari den horren funtsezko ezaugarri buruzko informazioa emateko.

Informatzeko eginbehar hori eragingarria izan dadin,

información, se establece que, en el caso de que el contrato no contuviera alguna de las menciones exigidas, el adquirente tendrá el derecho a resolver unilateralmente el contrato en el plazo de tres meses, a contar desde su celebración.

Esta facultad conserva en el texto la denominación de «facultad de resolución» porque tiene una naturaleza distinta a la del desistimiento en cuanto es necesario que exista una previa condición, como es el incumplimiento, por parte del vendedor, del deber de información que le incumbe.

Como disposición complementaria de las facultades de desistimiento y de resolución, la Directiva establece que, para el caso de que la adquisición se haya financiado con un préstamo del vendedor o de un tercero, previo acuerdo celebrado entre el tercero y el vendedor, el ejercicio de la facultad de desistimiento o de resolución implicará, igualmente, la resolución del préstamo.

Por último, la Directiva se ocupa de otros aspectos, como son el de la lengua en que debe ir redactado el contrato que firma el adquirente o la sujeción a determinados fueros.

La figura suscitaba dos cuestiones jurídicas: una de orden terminológico y otra de política legislativa.

El término «multipropiedad» tenía la gran ventaja de haber calado en la opinión pública, hasta el punto de ser, con mucho, la forma más habitual de denominar entre nosotros a la institución, con independencia de que se hubiera constituido como una forma de propiedad o como una forma de derecho personal.

Pero es precisamente ese carácter globalizador con el que normalmente se utiliza, por un lado, y el hecho de hacer referencia a una forma concreta de propiedad, por otro, lo que lo hacen un término inadecuado por equívoco.

Otra opción era utilizar la fórmula empleada en la Directiva: «tiempo compartido».

Sin embargo, esta forma de denominar a la institución resulta también poco satisfactoria.

En principio, parece un término más genérico que el de «multipropiedad, pero hay que tener en cuenta que «tiempo compartido» no es más que la traducción al español de la forma inglesa «time-sharing».

La expresión «tiempo compartido» aunque no parece presentar serios inconvenientes para denominar con ella la forma societaria del derecho francés, no es adecuada para incluir cualesquiera otras fórmulas, tanto si son de derecho personal (el multiarriendo griego) o de derecho real (el derecho de habitación periódica portugués).

Además, tiene el inconveniente de que parece dar a entender que, entre los titulares de estos derechos, lo que se comparte es el tiempo, cuando es precisamente lo contrario, puesto que los titulares lo

ezarri da kontratuak beharrezko aiparmenen bat izan ezean, eskuratzailleak berak bakarrik izango duela kontratua suntsiarazteko eskubidea hiru hilabeteko epean, kontratua egin denetik zenbatzen hasita.

Ahalmen horrek «suntsiarazte-ahalmen» izena du testuan, atzera-egiteko ahalmena baino, bestelako izaera duelako; izan ere, lehenengo horretan beharrezkoa da aurretiaz baldintza bat izatea, alegia, saltzaileak ez betetzea berari dagokion informazio-eginbeharra.

Atzera-egiteko ahalmenaren eta suntsiarazte-ahalmenaren xedapen osagarri moduan, zuzentarauak ezarri du, eskuraketa saltzailearen edo hirugarren baten maileguarekin finantzatu bada, hirugarrenaren eta saltzailearen artean aurretiaz hitzarmena eginda, atzera-egiteko ahalmenak edo suntsiarazte-ahalmenak, era berean, maileguaren suntsiaraztea ekarriko duela.

Amaitzeko, zuzentarauan beste gai batzuk jaso dira, besteak beste, eskuratzailleak sinatutako kontratua zein hizkuntzatan idatzi behar den edo zein foruren menpe egon behar den.

Figurak bi arazo juridiko eragiten zituen: terminologiaren arlokoa, bata; eta legegintza-politikakoa, bestea.

«Multijabetza» kontzeptuaren abantaila handia zen iritzi publikoan arrakasta izatea. Ondorioz, gure artean erakundea izendatzeko modurik ohikoena zen, nahiz eta kontzeptu horrek jabetza- mota baten edo eskubide pertsonal baten izaera gogoratu.

Ondorenez, kontzeptu desegokia da hori, ohiko moldez izaera globalizatzaile horrekin erabiltzen delako, batetik, eta jabetza- mota zehatz bati aipamen egiten diolako, bestetik; hori guztia dela eta, adierazmolde hori zehaztugabekoa da.

Beste aukera bat zuzentarauan erabilitako formula erabiltzea zen: «erkidegopeko denbora».

Alabaina, erakundea izendatzeko modu hori ere ez da egokia.

Funtsean, «multijabetza» baino hitz orokorragoa dirudi, baina kontuan izan behar da «erkidegopeko denbora» ez dela «time sharing» ingeleseko formaren itzulpena baino.

«Erkidegopeko denbora» adierazpenak ez du, itxuraz, Frantziako zuzenbideko forma sozietarioa izendatzeko oztopo larririk; hala eta guztiz ere, ez da egokia bestelako formulak sartzeko, zuzenbide pertsonalekoak izan (Greziako multierrentamendua) zein zuzenbide errealekoak izan (Portugalgo aldizkako biztante-eskubidea).

Gainera, oztopo bat du horrek, itxuraz adierazten duelako eskubide horien titularren artean denbora erkidegoan dagoela, eta, egiatan, guztiz alderantzizkoa da, titularrak titular direlako

son respecto de períodos de tiempo diferentes y excluyentes.

Por ello, resulta preferible la expresión «derecho de », en primer lugar, porque es menos comprometida, en el sentido de ser una expresión más genérica y más descriptiva, y, en segundo lugar, porque se ajusta perfectamente a la regulación que del mismo se hace.

Nada obsta, sin embargo, a que se mantenga la utilización de esta denominación, o de cualquier otra, en particular a efectos promocionales, siempre que no contenga la palabra propiedad, o no pueda ser equívoca en cuanto al contenido del derecho a que se hace referencia.

La cuestión clave de política legislativa consistía en determinar si debían regularse varias fórmulas institucionales o si se debía limitar su regulación a una sola, dejando fuera de la ley a las demás.

Se ha optado por una vía intermedia, consistente en la detallada regulación de un nuevo derecho real de , permitiendo sin embargo la configuración del derecho como una variante del arrendamiento de temporada, al que resultarán aplicables el conjunto de disposiciones de la Ley en cuanto no contradigan su naturaleza jurídica.

La Ley, por otra parte, no se limita a la transposición estricta de la Directiva, sino que procura dotar a la institución de una regulación completa.

Así determina la posibilidad de constituir un derecho de naturaleza real, por el que se adquiere la facultad de disfrutar de un inmueble durante un período determinado del año; regula cómo se constituye sobre un inmueble el régimen jurídico del aprovechamiento por turno y dispone cómo han de ejercitarse en España los derechos de desistimiento y resolución que establece la Directiva europea.

No es la primera vez que un texto comunitario es origen de una regulación interna más amplia de la exigida por aquél y, más aún, tratándose de Directivas que establecen unas garantías mínimas de protección.

Todas estas cuestiones pueden encuadrarse dentro del Derecho privado civil y mercantil del Estado y, por tanto, la Ley se dicta al amparo de lo establecido en el artículo 149.1.6.1, 8.1 y 14.1 de la Constitución.

Lógicamente, ello se entiende sin perjuicio de las competencias que la propia Constitución reconoce en cuanto a la conservación, modificación o desarrollo de los derechos civiles de las Comunidades Autónomas.

Además, la Ley contiene una expresa mención de la empresa de servicios, esencial para la vida del régimen y para el adecuado disfrute del derecho adquirido.

Sin empresa de servicios, o si ésta funciona

denboraldi desberdinetan, eta denboraldiok elkar baztertzen dutelako.

Hori horrela, komenigarriagoa da «txandakako aprobetxamendu- -eskubide» adierazmoldea, lehenengoz, hain zaila ez delako, orokorrigo eta deskriptiboa baita, eta, bigarrenez, horri buruz egindako arauketari ezin hobeto egokitzen zaiolako.

Hala ere, aurrerantzean izendapen hori edo beste edozein erabiliko da, zehazki sustapen-ondoreetarako, baldin eta jabetza hitza barnean hartzen ez badu, edo aipatzen den eskubidearen adiera zehaztugabea ez bada, beraren edukari dagokionez.

Legegintza-politikaren funtsezko arazoa zen formula instituzional batzuk edo bakarria arautzea, gainerakoak legetik baztertuz.

Erdiko bidea hautatu da, hots, txandakako aprobetxamenduaren beste eskubide erreal bat modu xehean arautzea eta, hala ere, eskubidea denboraldi bateko errentamenduaren aldagai gisa eratzea. Eskubide horri legearen xedapen guztiak aplikatuko zaizkio, beraren izaera juridikoaren aurkakoak ez badira.

Bestalde, legeak ez du zuzentaraua zehatz-mehatz jasotzen, erakundearen arauketa osoa jasotzen ahalegindu da eta.

Horrenbestez, legeak aukera zehaztu du izaera errealeko eskubide bat eratzeko. Eskubide horren bidez, ahalmena eskuratzen da, ondasun higiezin bat urteko aldi zehatz batean lupertzeko; legeak ondasun higiezina txandaka aprobetxatzeko araubidea nola eratzten den arautu du, eta xedatu du nola egikaritu behar diren Espainian Europako Zuzentarauak ezarri dituen atzera-egiteko eskubidea eta suntsiarazte-eskubidea.

Ez da lehenengo aldia Europar Batasunaren testu batek eskatutako barne arauketa baino zabalagoa eragiten duena, are gehiago, gutxieneko babes-bermeak ezartzen dituzten zuzentarauak izanda.

Arazo horiek guztiak sar daitezke estatuko zuzenbide pribatu zibilaren eta merkataritzakoaren barruan, eta, beraz, legea eman da Konstituzioaren 149.1.6.1, 8.1 eta 14.1 artikuluetan ezarritakoaren babesean.

Esan beharrik ez dago hori guztia ulertzen dela Konstituzioak autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibilak gorde, aldatu edo garatzeko ezarri eskumenei kalterik egin gabe.

Horrez gain, legean berariazko aipamena egin zaio zerbitzu-enpresari, araubideak iraun dezan eta eskuratutako eskubidearen luperketa ganorazkora izan dadin.

Zerbitzu-enpresarik ez badago edo hori modu

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Aiora Aristondo, Arantza Etxebarria, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

incorrectamente, el derecho no podrá ser ejercitado en la práctica y de poco le servirá al adquirente que el contenido jurídico del mismo esté en otros aspectos perfectamente determinado.

II

El texto está dividido en dos Títulos (normas civiles y mercantiles y normas tributarias) y desarrollado en veinte artículos, tres disposiciones adicionales, tres disposiciones transitorias y una disposición final.

El Título I se divide en tres capítulos (disposiciones generales, régimen jurídico e incumplimiento de los servicios); el capítulo II, a su vez, está dividido en dos secciones (constitución y condiciones de promoción y transmisión).

El capítulo I está dedicado a las disposiciones generales.

Al definir el ámbito de aplicación, la Ley utiliza la expresión «alojamientos» para denominar los elementos sujetos al régimen.

Tal expresión incluye tan sólo los elementos que sean susceptibles de ser utilizados como alojamiento.

Por eso, luego se excluyen de la constitución los locales, entendiéndose por tales todos los elementos que no pueden tener tal destino y por eso se exige, antes de la constitución del régimen, la obtención de las correspondientes cédulas de habitabilidad, requisito que sólo tiene sentido para elementos destinados a alojamiento.

Además, se establece que el régimen sólo podrá recaer sobre un edificio, conjunto inmobiliario o sector de éstos arquitectónicamente diferenciado para evitar que en una edificación o grupo de edificaciones el propietario de tan sólo alguno o algunos alojamientos, físicamente dispersos, constituya un régimen de derechos de aprovechamiento por turno sobre los mismos.

No se impide la extinción parcial del régimen siempre que se respete esa identidad física y los derechos preexistentes.

Se permite, no obstante, la explotación mixta de un inmueble siempre que el tipo de explotación que tenga que convivir con un régimen de derechos de aprovechamiento por turno sea otro tipo de explotación turística, pues, en este caso, las dos actividades, a efectos materiales de convivencia, son tan próximas que ningún perjuicio grave para los clientes y los titulares de los derechos puede derivarse de ello.

El ámbito de aplicación restrictivo ha aconsejado establecer una norma para determinar el régimen de los derechos de aprovechamiento por turno o similares a éstos que se constituyan sin ajustarse a la Ley, pues aunque es evidente que se trataría de supuestos de fraude de ley y deberán, en consecuencia, someterse a la solución del artículo

desegokian badabil, eskubidea ezin da praktikan egikaritu, eta eskuratzailereantz ez da nahikoa izango horren eduki juridikoa beste arazo batzuei begira erabat zehaztuta egotea.

II

Testuak baditu bi titulu (arau zibilak eta merkataritzakoak, eta zerga- arauak), hogeitun artikulua, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta azken xedapen bat.

I. titulua hiru kapitulutan zatituta dago (xedapen orokorrak, araubidea eta zerbitzuak ez betetzea); II. kapitulua ere bi ataletan zatituta dago (eratzea, eta sustatze- eta eskualdatze-baldintzak).

I. kapitulua xedapen orokorrei buruzkoa da.

Aplikazio-eremua definitzean, legeak «bizitegiak» esamoldea erabili du araubidepeko osagaiak izendatzeko.

Esamolde horrek bizitegi gisa erabil daitezkeen osagaiak baino ez ditu hartzen.

Hori dela eta, gero, lokalak araubidearen eraketatik salbuetsi dira, hau da, helburu hori izan ezin duten osagai guztiak; horregatik, araubidea eratu aurretik, kasuan kasuko bizigarritasun-zedulak lortu behar dira, betekizun horrek bizitegi izatera bideratutako osagaietan baitu soil-soilik zin-zinezko esangura.

Ez da, bestalde ere, araubidea eraikin baten, ondasun higiezin multzo baten edo multzo horien sektore baten —arkitekturari begira bereizita baldin badago— gain soilik gertatu ahal izatea. Modu horretan saihestu da eraikin batean edo eraikinen multzo batean bizitegi baten edo fisikoki sakabanatuta dauden bizitegi batzuen jabe denak horiek txandaka aprobetxatzeko eskubideen araubidea eratzea.

Ez da eragotzi araubidea zati batean azkentzea, izate fisiko hori eta aurretik dauden eskubideak errespetatzen badira.

Beraz, ondasun higiezina modu mistoan ustiatzea ahalbidetu da, txandakako aprobetxamendu- eskubideen araubidearekin batera iraun behar duen ustiapen-mota beste mota bateko turismo- ustiapena baldin bada; izan ere, kasu horretan, bi jarduerak, elkarbizitzaren ondore materialerako, oso hurbilekoak dira, eta hortik ezin sor daiteke kalte larririk bezeroentzat, ez eskubideen titularrentzat ere.

Aplikazio-eremu murrizgarriaren eraginez, komenigarri izan da legeari lotu gabe eratu diren txandakako aprobetxamendu- eskubideen edo horien antzekoen araubidea zehazteko arau bat ezartzea. Izatez, nabaria izan arren horiek lege- maularen kasuak direla, eta, ondorenez, horiei Kode Zibilaren 6.4 artikuluko konponbidea aplikatu behar

6.4 del Código Civil, ésta no parece por sí sola norma suficiente para evitar que, de hecho, el fraude de ley se produzca en la práctica.

No obstante, como ha quedado dicho, se incluyen a todos los efectos en el ámbito de la Ley los arrendamientos de temporada que tengan por objeto más de tres de ellas y en los que se anticipen las rentas correspondientes a algunas o a todas las temporadas contratadas.

Se establece una duración mínima (tres años) y máxima (cincuenta años) del régimen.

Dentro de estos límites caben todas las opciones de lo que puede ser un tiempo razonable para agotar las posibilidades reales de disfrute del adquirente.

Esta limitación de la duración del régimen es, además, la que permite que el propietario que lo ha constituido siga, durante la vida de éste, vinculado al inmueble.

Esta vinculación es deseable a partir del momento en que se considera que lo que ofrece el propietario no es sólo una titularidad inmobiliaria, sino también un servicio durante la existencia del derecho, que es lo que explica la naturaleza necesariamente compleja de la relación entre el titular de un derecho de aprovechamiento por turno y el propietario del inmueble.

Así pues, el propietario debe garantizar que los titulares de los derechos reciban los debidos servicios implícitos en su titularidad.

Esta garantía mínima exigible existe desde el momento en que el propietario sigue vinculado al inmueble, lo cual sólo puede ser así porque los derechos por él enajenados no son plenos, sino limitados.

Y la limitación, en este caso, sólo puede afectar a la duración del régimen.

III

La formalización del régimen en escritura pública se establece como constitutiva, y se impone como obligatoria su inscripción en el Registro de la Propiedad, con el fin de evitar que se puedan iniciar las transmisiones de derechos de aprovechamiento por turno antes de que tanto el fedatario autorizante como el registrador controlen la legalidad del régimen y se haga público.

Así, los adquirentes, antes o después de su adquisición, podrán acudir al Registro para recabar la información esencial sobre el régimen al que se encuentra sometida su adquisición, con plena garantía de su adecuación a la legalidad.

Al otorgamiento de la escritura reguladora ha de concurrir la empresa que ha de prestar los servicios propios del contenido esencial del derecho de , salvo que el propietario o promotor manifieste

zaiela, badirudi arau hori, bera bakarrik, ez dela nahikoa, lege-maula praktikan saihesteko.

Hala eta guztiz ere, esandako moduan, denboraldi bateko errentamenduak legearen eremuan sartu dira ondore guztietarako, horiek xedetzat hiru denboraldi baino gehiago badituzte eta kontratatutako denboraldi batzuei edo guztiei dagozkien errentak aurreratzen badira.

Araubidearen gutxieneko iraupena (hiru urte) eta gehieneko iraupena (berrogeita hamar urte) ezarri dira.

Muga horien barruan sartzen dira arrazoizko denbora-aukera guztiak, eskuratzailerak dituen benetako lupertze- aukera guztiak agortu ahal izateko.

Horrez gain, araubidearen iraupena mugatuta, araubide hori eratu duen jabeak ondasun higiezinari lotuta iraungo du, araubideak irauten duen bitartean.

Lotura hori desiratzeko modukoa da kontuan hartzen denetik jabeak ez duela ondasun higiezinari begira titulartasuna bakarrik eskaintzen; zerbitzu bat ere eskaintzen du, eskubideak irauten duen bitartean. Horrexek azaltzen du, hain zuzen ere, txandakako aprobetxamendu- eskubidea duen titularraren eta ondasun higiezinaren jabearen arteko lotura konplexua.

Horrenbestez, jabeak bermatu behar du eskubideen titularrek jasoko dituztela titulartasunak barnean daramatzan zerbitzuak.

Eska daitekeen gutxieneko berme horrek iraungo du jabea ondasun higiezinari lotuta dagoen bitartean, eta hori horrela izan daiteke, berak besterendutako eskubideak ez baitira osoak, mugatuak baino.

Eta, kasu horretan, mugapenak araubidearen iraupena soilik uki dezake.

III

Araubidea eskritura publikoan formalizatzea eratzailea dela ezarri da, eta nahitaezkoa da berori Jabetza Erregistroan inskribatzea; horrela eragotzi ahal izango da txandakako aprobetxamendu- eskubideen eskualdaketak hastea, bai fedemaile eskuesleak bai erregistratzaileak araubidearen legezkotasuna kontrolatu eta berori publiko egin aurretik.

Horrela, eskuratzailerak, eskuraketa egin aurretik edo ondoren, Erregistroa joan ahal izango dira, eskuraketaren gain ezarritako araubideari buruz funtsezko informazioa jasotzeko, eta berme osoa izango dute horren legezkotasunari dagokionez.

Eskritura arau-emailea egilestean, parte hartu behar du txandakako aprobetxamendu- eskubidearen funtsezko edukiaren zerbitzuak egin beharreko enpresak, salbu eta jabeak edo sustatzaileak

expresamente que asume directamente su prestación.

En la sección dedicada a las «condiciones de promoción y transmisión» se transponen la mayoría de las normas de la Directiva de 1994.

Aparte de su naturaleza restrictiva del principio de autonomía de la voluntad, en la transposición no hay problemas especiales, salvo por lo que se refiere al caso de que el contrato se celebre directamente ante notario.

La intervención del fedatario público sería suficiente para considerar innecesario conceder al adquirente la facultad de desistimiento, pues su presencia impide el que la otra parte haga valer su preponderancia, pero, puesto que la Directiva no establece ninguna excepción en favor de estos contratos intervenidos, ha sido necesario conservar esa facultad de desistimiento, si bien exigiendo que el mismo se haga por acta notarial, como documento público equivalente a la escritura en la que se ha formalizado el contrato sobre un derecho de .

La facultad resolutoria que, salvo pacto en contrario, se reconoce al transmitente en el contrato de adquisición de un derecho de aprovechamiento por turno (artículo 13) está justificada por la singular naturaleza de tal derecho, donde el valor del mismo depende tanto de los servicios como de su contenido, de forma que es perfectamente lógico que el impago de aquéllos pueda implicar la resolución del derecho.

Se permite, asimismo, pactar una cláusula penal que compense al propietario o promotor que opta por resolver el contrato cuando el adquirente deje de pagar las cuotas debidas al prestador de servicios.

IV

La Ley, de ámbito estrictamente civil, no impone sanciones administrativas para el caso de incumplimiento de sus normas.

Pero es obvio que ello no impide que tales incumplimientos, cuando la actividad sea calificada como turística por las Comunidades Autónomas o mediante el desarrollo de la normativa autonómica en materia de protección a los consumidores y usuarios, puedan ser consideradas por la legislación de aquéllas como infracciones administrativas sancionables, sin perjuicio de los derechos que la Ley reconoce a los titulares de los derechos de .

No obstante, la Ley intenta que, a través de la exigencia de unos requisitos previos muy rigurosos, cuyo cumplimiento es indispensable para constituir el régimen y cuyo control se atribuye a notarios y registradores, los incumplimientos sean aislados o, al menos, poco frecuentes, haciendo mínima la necesidad de la intervención administrativa.

berariaz adierazten duenean horiek egitea bere gain hartzen duela.

«Sustatze- eta eskualdatze-baldintzei » buruzko atalean, 1994ko Zuzentarauko arau gehienak jaso dira.

Borondatearen autonomia-printzipioa murrizteaz aparte, ez dago arazo berezirik, salbu eta kontratua zuzenean notarioaren aurrean egilesten denean.

Fedemaile publikoaren eskuespena nahikoa izango da, eskuratzailari atzera-egiteko ahalmena ematea beharrezkoa ez dela uste izateko, fedemailea egotean beste alderdiak ezin duelako bere nagusitasuna baliarazi. Hala ere, zuzentarauak kontratu eskuetsien mesederako salbuespenik ezarri ez duenez, beharrezkoa izan da atzera-egiteko ahalmen horri eustea; nolahi ere, berori notario-aktaren bidez egin behar da, agiri publiko gisa, eta agiri hori izango da txandakako aprobetxamendu-eskubideari buruzko kontratua formalizatzeke erabili den eskrituraren baliobestekoa.

Kontrako itunik egin ezean, txandakako aprobetxamendu-eskubidea eskuratzeko kontratuan eskualdatzailari aitortu zaion suntsiarazte-ahalmena (13. artikulua) eskubide horren izaera bereziaren bidez justifikatzen da, eskubidearen balioa zerbitzuen eta horien edukien arabera izanik. Hori dela bide, guztiz logikoa da zerbitzuak ordaindu ezean eskubidea suntsiarazi ahal izatea.

Gisa berean, zigor-klausula bat itundu daiteke; horrek konpentsatuko du kontratua suntsiaraztea aukeratzeko duen jabea edo sustatzailea, baldin eta eskuratzailak ordaintzen ez baditu zerbitzuen emaitzari zor dizkion kuotak.

IV

Legeak, hertsi-hertsian esparru zibilekoa baita, ez du administrazio-zehapenik ezarri, arauak betetzen ez diren kasurako.

Baina argi dago autonomia- erkidegoek jardura turismo-jardura gisa kalifikatzen badute, edo kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko autonomia-arauketa garatuta, ez-betetze horiek kasuan kasuko legeriaren arabera zehatzeko moduko arau-hauste administratibo moduan har daitezkeela, legeak txandakako aprobetxamendu-eskubideen titularrei aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Haatik, legeak lortu nahi du ez-betetze horiek isolatuak, edo, gutxienez, oso ohikoak ez izatea, eta, beraz, Administrazioak esku hartzeko beharra gutxienetan gertatzea. Hori lortzeko, beharrezkoak dira legearen aurretiazko betekizun zorroztzak, betekizunok araubidea eratzeko nahitaezkoak izanik, eta horien kontrola notarioei eta erregistratzaileei eratzikita.

V

El Título II contiene una serie de normas tributarias aplicables a los derechos contemplados en la presente Ley y que tienen por finalidad no discriminar en el plano fiscal a los titulares de los derechos reales de aprovechamiento por turno en relación con los titulares de otras posibles fórmulas de utilización de inmuebles a tiempo parcial.

En efecto, de no introducirse esta regulación, los citados derechos reales seguirían el régimen previsto en las diferentes leyes de los tributos para los derechos de esta naturaleza y, como consecuencia de su carácter de derechos reales de disfrute sobre bienes inmuebles, darían lugar, en algunos supuestos, a la aplicación de tipos impositivos superiores a los previstos para la transmisión o adquisición de derechos de carácter personal.

De acuerdo con lo anterior, y, teniendo presente el carácter particular de las normas contempladas en este Título, que no constituyen, en puridad, un régimen tributario específico, sino que contienen, únicamente, ciertas especialidades que no impiden la aplicación, en lo no previsto expresamente, de la normativa tributaria general y de las disposiciones propias del Impuesto sobre el Patrimonio, del Impuesto sobre el Valor Añadido y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, a los que se hace referencia en el citado Título.

En el Impuesto sobre el Patrimonio, cualquiera que sea la naturaleza del derecho en cuestión, se unifica el criterio para su valoración, a efectos de su integración en la base imponible de este impuesto, determinando la valoración por el precio de la adquisición.

En el Impuesto sobre el Valor Añadido, se generaliza la aplicación del tipo reducido al 7 por ciento a las prestaciones de servicios consistentes en la cesión de los derechos de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles como en otras formas de utilización de los bienes inmuebles por período determinado o determinable del año, con prestación de alguno de los servicios complementarios propios de la industria hotelera.

Finalmente, en el ámbito del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados se establece la aplicación del tipo de gravamen del 4 por 100, propio de la transmisión de derechos de carácter personal.

En definitiva, pues, el régimen tributario contemplado en la presente Ley asimila el tratamiento en los supuestos contemplados en la misma de los derechos reales de aprovechamiento por turno de bienes inmuebles y otros de derechos de naturaleza personal distintos de los anteriores, con la finalidad ya señalada de no discriminar negativamente a los primeros.

Esta finalidad responde plenamente al objeto de la

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Aiora Aristondo, Arantza Etxebarria, Gotzon Lobera, Andres Urrutia,
Esther Urrutia eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

V

II. tituluari, lege honetako eskubideei aplikatzeko moduko zerga-arau batzuk gehitu dira, eta horien xedea da bereizkeriarik ez egitea txandakako aprobetxamendu-eskubide errealeen titularren aurka arlo fiskalean, ondasun higiezinak zati batean erabiltzeko bestelako formulen titularren aurrean.

Hain zuzen ere, arauketa hau sartu ezean, aipatu eskubide errealean, izaera bereko eskubideetarako zergen lege ezberdinetan ezarritako araubidea aplikatuko litzateke, eta, ondasun higiezinak lupertzeko eskubide errealean izaeraren ondorioz, kasu batzuetan aplikatu ahal izango dira izaera pertsonaleko eskubideak eskualdatu edo eskuratzeko zerga-tasak baino handiagoak.

Aurrekoarekin bat etorritik, kontuan hartu behar da titulu honetan ezarritako arauen izaera berezia, arauok huts-hutsean ez baitute zerga-araubide zehatzik eratzten; berezitasun batzuk soil- -soilean biltzen dituzte. Berezitasun horiek ez dute eragozten aplikatzea, berariaz aurreikusitako diren kasuetan, zerga-arauketa orokorra, bai eta titulu horretan aipatu Ondarearen gaineko Zergaren, Balio Erantsiaren gainerako Zergaren, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren berezko xedapenak ere.

Ondarearen gaineko Zergan, eskubidearen izaera gorabehera, berori balioesteko irizpidea bateratu da, eskubidea zerga honen zerga-oinarrian sartzeko, eta balorazioa eskuraketa- -prezioaren arabera zehaztu da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan, ehuneko 7ra murriztutako tasaren aplikazioa zerbitzuen prestazioetara zabaldu da, besteak beste, ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideak lagatzera, edota ondasun higiezinak urteko aldi zehatz batean edo zehazteko modukoan erabiltzeko bestelako moduetara, baldin eta hotel- -industriari dagokion zerbitzu osagarriren bat ere egiten bada.

Amaitzeko, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren eremuan, 100eko 4ko karga-tasa aplikatzea ezarri da, izaera pertsonaleko eskubideen eskualdaketa aplikatzen dena.

Hainbatez, azken buruan, lege honetan ezarritako zerga-araubideak tratamendua berdinetu du, legean bertan ezarri kasuetan; egin-eginean ere, xedea aurretiaz aipatutakoa da ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubide errealei buruzko kasuetan, eta aurrekoak modukoak ez diren izaera pertsonaleko eskubideei buruzkoetan, alegia, lehenengoan aurka bereizkeriarik ez egitea.

Helburu hori lege honen eta 94/47/EE

